


FFC edo berotegi-gasen etorkizuneko belaunaldia...

Berotegi-efektua sortzen duten gasen artean guztiz fluorizaturiko konposatuak edo FFC direlakoak nagusitzen ari dira. Aitzitik, Martxoan Berlinen burutu zen Klimari buruzko Nazioarteko Biltzarra CFC-ak ordezkatzeko FFC-ak erabiltzearen aldekoa azaldu zen. Gas horien tajuzko ikerketa egiten ez bada, orain arte hartutako neurriak ezerezean geratuko direla iragarri dute ikerlariak. Washingtoango Baliabideen Ikerketarako Institutuan urte asko eman dituzte FFC-en ezaugarriak aztertzen. Aztergai nagusia gas horien

Karbono(IV) oxidoaren arrisku-epea 100 urtekoa den bitartean, FFC-ek 50.000 urte eman ditzakete atmosferan.



bizitza da, horrek egiten baititu jendeak uste baino arriskutsuago. Berotegi-efektua sortzen duten gasen artean, izan ere, guztiz fluorizaturiko konposatuak dira desagertarazten zailenak. Karbono(IV) oxidoaren arrisku-epea 100 urtekoa den bitartean, FFC-ek 50.000 urte eman ditzakete atmosferan.

... eta etorkizunean ezagutuko dugu irtenbidea

Berotegi-gasen eragina gutxiagotu ahal izateko gas horien erabilera aldatzea da askok amesten duten irtenbidea. Suitzako kimikaritalde baten ikerketak bide horretatik doaz. Jadanik, karbono(IV) oxidoa urarekin nahastu eta erregai bilakatzea lortu dute eta horretara-

rako eguzki-argia baino ez dute erabili behar izan. Elementu katalizatzailea titanio(IV) oxidoa da, hortzetako pastan aurki daitekeen substantzietako bat. Landare berdeen fotosintesiarekin pareka daiteke prozesu kimiko hori, eguzki-argiari esker gertatzen baita. Edonola ere, argi-espektroaren azken izpi ultramoreak baino ez dira erabiltzen eta horrek teknika berriaren garapena atzera deza-keela uste dute.

Hezurretarako lekeda

Kaltzioa eta fosfatoa. Siplea iruditu arren, bi elementu horien nahasketak orain arteko buruhauste eta hezur-hauste gehienak ahazteko aukera eskainiko digula zabaldu da. Izan ere, hezurren hausturak osatzeko erabiltzen ari den ore edo lekeda berriaren osagai nagusiak kaltzio eta fosfato baino ez dira, hezurren osagai nagusiak, hain zuzen. Orearen erabilera normalduz gero, akabo igeltsuak edo ebakuntza luzeak, egun berean hezurra osatzeko bidea emango baitu. Substantzia berri hori hortzetako pastaren modukoa da. Hautsitako hezurtean injektatzen da eta hiru minuturen buruan lehorra dago jadanik eta hezurra itsatsirik. Hezurtearekin era-



Hezurren hausturak osatzeko erabiltzen ari den ore edo lekeda berriaren osagai nagusiak kaltzio eta fosfato baino ez dira, hezurren osagai nagusiak, hain zuzen.

bat berdintzeko, hau da, zeharo lehortzeko, 12 ordu baino ez ditu behar izaten.

Buru-hezurak mintzo direnean

Irudiko buru-hezurak uste baino ezuste gehiago eman dizkie Washingtoango Unibertsitateko Ikerlariari. Hegoamerikako Talgua ibaiaren ertzean aurkitutako aztarnategian argazkikoa eta beste 200 buru-hezur zeuden, ikerlariak iritsi zain, agidanez. Lehen azterketaren arabera, Hegoamerikako aztarnarik zaharrenak dira eta balio handia izango dute orain arte ezagutzen ez ziren zibilizazioak ikertzeko. Ezusterik



handiena buru-hezurrekin batera aurkitutako tresnek eman dute: Ma-yen zibilizazioa garatu baino lehenagokoak badira ere, horiena baino gizarte-egitura sendoa-go zutela frogatu dute. Hipotesi hori baieztatzeko bi giza taldeen adierazgarri diren aztarnen proteina-azterketa egin dute eta lortutako ondorioek orain arteko teoriak okerrak direla frogatu dute.

frogatu ahal izan denez, alkoholari emandakoen erdiak ez du bromokriptina tratamendua onartzen. Aitzitik, beste erdiarentzat bromokriptina substantzia bera tratamendu egokia suertatu da. Joera horren arrazoia proteinak sortzen dituen geneak desberdinak izatea omen da. Alkoholismoaren genea deritzonak portaera-arazoak sortzen ditu eta genearen aldaketa txiki horrek alkoholarekiko joera handiagotzen duela frogatu dute.

laterrako ikerlari-taldea bat ondorio horretara heldu da 1987 eta 1994 urteen bitartean gertatutako trafiko-istripuei buruzko datuak aztertu eta gero. Ikerketaren

Gidari helduagoen artean, ordea, bazkalondorako joera nagusitzen da; esan nahi baita sies-ta orduak direla heldu-en artean arriskutsuenak.



arabera, epe horretan Ingalaterran gertatutako ezbeharren % 16 logurak eragindakoa izan zen. Bestalde, joera handiagoa da autopistan gertatutako istripuak kontutan hartuz gero, ezbeharren % 20 gidariak lo geratu izanaren ondorioz gertatu zelarik. Ikerlarien iritziz, autopistetako ezaugarriek beraiek eragiten dute joera-aldaketa hori, abiadura handiagoa delako eta gidaritza bera monotonoago suertatzen delako.

Gutako askok horrela uste ez badu ere, trafiko-istripuen eragile nagusitakoa logura da.

Abiadura istripu askoren eragile dela onartu beharra badago ere, logurak eragindakoak orain arte gutxietsi egin direla diote ikerlariak. Logura areagotzen duten faktoreak asko badira ere, ikerlariak automobilaren erosotasuna azpimarratu dute. Eredu ergonomikoen, izan ere, gurpil gaineko ohe bihurtu dituzte gaur eguneko automobilak.



Ikerketaren beste datu interesgarri bat loa eta adinaren arteko erlazioari dagokio. Gidari gazteak, izan ere, goizaldean sartzen dira arrisku-orduetan, istripu gehienak goizaldeko 2ak inguru eta 6ak alde-ara jazotzen direlarik.

Irudiko buru-hezurak uste baino ezuste gehiago eman dizkie Washingtingo Unibertsitateko Ikerlariak.



Alkoholismoaren jatorri genetikoak

Australiako Unibertsitateko ikerlariak alkoholismoaren jatorri genetikoak ezagutzeko tratamendu eraginkorragoak aurkitzen lagunduko duelakoan daude. Geneen egiturak alkoholarekin duen erlazioari buruz orain arte oso gutxi genekien. Berriki

Hipotesi hori baieztatzeak alkoholismoaren alderdi berria ikertzeko bidea zabaltzea ekarriko luke. Hasteko, tratamenduak finkatzea eta azkartzea errazago izango litzateke. Gaur egungo tratamenduak erabiliz, 18 hilabete inguru behar izaten du alkoholiko batek bere menpekotasuna gainditzeko. Halaber, gutxi dira sendatze-prozesuaren amaierararte iristen direnak. Australiako ikerlariak eskuartean darabiltzaten datuen arabera, gaixoen % 90 alkoholari ez eta tratamenduari utzi egiten dio amaitu baino lehen.

Logura: arrisku-faktorea

Gutako askok horrela uste ez badu ere, trafiko-istripuen eragile nagusitakoa logura da. Inga-